

ERASMUS+ PLAZA EMAN ETA ONARTU ONDOREN EGIN BEHARREKOAK

1. GARRANTZITZUA
2. KONPROMISO AKADEMIKOA ETA MATRIKULA
3. EMAN BEHARREKO DOKUMENTAZIOIA
 - 3.1. Mugikortasuna hasi baino lehen
 - 3.1.1. Erasmus+ diru-laguntzen kontratua (Sepie beka)
 - 3.1.2. Istripu eta aberriratze aseguru
 - 3.1.3. Hizkuntzaren proba OLS plataforman
 - 3.2. Mugikortasuna hastean
 - 3.2.1. Certificate of arrival / Hasierako ziurtagiria
 - 3.3. Mugikortasuna amaitzean
 - 3.3.1. Certificate of attendance / Egonaldi amaierako ziurtagiria
 - 3.3.2. Erasmus+ ikaslearen azken txostena
 - 3.4. Dokumentazioaren laburpen-taula
4. DESKARGATZEKO DOKUMENTAZIOA
5. MAECeko "BIDAIARIEN ERREGISTROA"
6. BEKAK

1. GARRANTZITZUA

Komeni da arretaz irakurtzea mugikortasunari buruzko dokumentazioa, Nazioarteko Harremanen web orrian dagoena, <https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/erasmus-doktoregoa-2021-2022>.

Mugikortasun-programan parte hartzeko izapideak behar bezala egiteko, 3. puntuan adierazitako dokumentuak bidali behar dizkiguzu Leioako Nazioarteko Harremanetarako Bulegora (ORI), mezu elektronikoa honetara: movilidad.internacional@ehu.eus, eta Doktorego Eskolara (DOKe) international.doke@ehu.eus, adierazitako egunetan.

Mugikortasun-programako zure parte-hartzea behar bezala izapidetzea 3. puntuko dokumentuak Leioako Nazioarteko Harremanetako Bulegora (ORI)

(movilidad.internacional@ehu.eus) epeetan bidaltzearen baitan egongo da. Dokumentu horietakoren bat ez aurkezteak programan parte hartzeko eskubideak galtzea eta ikasketa- kontratua eta diru-laguntzaren kontratua ezeztatzea eragin dezake.

Oso garrantzitsua da kontaktu gisa eman duzun posta elektronikoa martxan edukitzea eta maiz berrius dezazula, ORI ikasleekin komunikatzeko modua delako.

Maiz kontsultatu Errektoreordetzaren webgunea. Baliteke inprimaki batzuk egonaldian zehar prestatzea, eta baliteke ere beste inprimakiren bat sartzea.

2. KONPROMISO AKADEMIKOA ETA MATRIKULA

Konpromiso akademikoa deskargatu eta inprimatu dezakezu Nazioarteko Harremanen webetik.

Tesiko zuzendariarekin Learning Agreement for Doctoral Studies delakoa bete behar izango da. Bertan jasoko da zein diren helburuko unibertsitatean egingo dituzun jarduerak eta UPV/EHUko zeinekin baliozkotuko diren, eta kontratua loteslea izan dadin, bi unibertsitateen baimen sinadurak eta doktoregaiarena izan beharko ditu.

3. EMAN BEHARREKO DOKUMENTAZIOIA

3.1. Mugikortasuna hasi baino lehen

3.1.1. Erasmus+ diru-laguntzen kontratua (Sepie beka)

Irakurri, bete eta sinatu ondoren, Leioako Nazioarteko Harremanetarako Bulegora (ORI) itzuliko da, izapidetzeko.

Eskaera egitean adierazitako kontu-zenbakian sartuko zaio laguntza onuradunari. Lehenengo ordainketan, EBren Erasmus+ funtsetatik eskuratutako zenbatekoaren **%70ren kopuru baliokidea** ordainduko dizugu: Kobratu ahal izateko ikasleak honako agiriak behar bezala beteta eta sinatuta bidali beharko ditu UPV/EHUko Leioako Nazioarteko Harremanetarako bulegora: Erasmus diru-laguntzen kontratua, harrera-unibertsitatean hasi dela egiaztatzen duen egiaztagiria, egonaldiko denboraldi OSOA estaltzen duen istripu eta aberriratzeko mediku-aseguru gehigarriaren frogagiriaren kopia eta hizkuntza-azterketa egina izatea OLS plataforman. Halaber, ordainketa egiteko, ikasleak eginda izan beharko du behin behineko edo behin betiko konpromiso akademikoa.

Gainerako **30% jasotzeko**, berriz, Certificate of Attendance delakoa bidali beharko diozu UPV/EHUko Nazioarteko Harremanetarako Bulegoari eta EBren galdetegia beteta eduki beharko duzu.

Beka kontzeptu gisa sartu beharreko zenbatekoa izango da organismo bakoitzak komunikatutako zenbatekoa eta hitzarmenean sinatutako hilabete kopurua biderkatetik ateratako emaitza, baina zazpi hilabete baino ez dituzte finantzatuko. Certificate of Attendance delakoaren datak hartuko dira kontuan egonaldian benetan emandako hilabeteak egiaztatzeko eta, kasuan kasu, Nazioarteko Harremanetako bulegotik eska daiteke egiaztatu ez diren hilabeteengatik jaso diren diru laguntzen zenbatekoa itzultzeko.

Webgunean, SEPIEk herrialde talde bakoitzerako [ezarritako zenbateko ekonomikoaren taula](#) dago, bakoitzaren maila ekonomikoaren arabera.

3.1.2. Istripu eta aberriratze aseguruak

Atzerrira joan aurretik:

- 1) **Gizarte Segurantzaren Europako Osasun Txartela** eskuratu beharko da eta
- 2) Bidaiarako **aseguru gehigarri bat** egin beharko da, aurreikusitako egonaldi OSOAN gerta litezkeen gorabeherak estaltzeko, aberriratze, heriotzarik egotekotan, eta osasun garraiorako estaldura mugagabea izango duena. Aseguru horen ordainketaren kopia bat aurkeztu beharko da koordinatzaileak Learning Agreement / Konpromiso Akademikoa sinatu ahal izateko. Aseguruaren kopia hau aurkezten EZ bada, ez da Learning Agreement / Konpromiso Akademikoa sinatuko eta ikaslea programatik at geratuko da eta salbuetsita geratuko da Errektoreordetza honek deialdi honen barruan gestionatutako gainontzeko mugikortasun-programetarako eskabide eta hautaketa-prozesuetatik eta UPV/EHUren Errektoreordetzak gestionatutako mugikortasun-programa guztien hurrengo deialdirako eskabide eta hautaketa-prozesuetatik at geratuko zara.

Aseguruaren eskakizunei buruzko informazio gehiago Erasmus+ programaren webgunean aurkituko duzu, 9. puntuan. <https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/erasmus-doktoregoa-2021-2022>

COVID 19:

Ibili aseguruak: 19-kobidaren estaldurak osasun-arreta (gaixotasuna hartu denean) eta aberriratzea barne hartzen ditu, beharrezkoa izanez gero, hau da, medikuak aginduta. Garrantzitsua: [estalduraren xehetasunak kontsultatu](#)

Beste aseguru batzuk: kontratatutako aseguruak Covid-19ren gaixotasun-estaldura barne hartzen duela egiaztatzea gomendatzen dugu.

3.1.3. Hizkuntzaren proba OLS plataforman

OHARRA: OLSeko hizkuntza-ebaluazioaren prozedurak aldaketak izan ditzake 2021-22 deialdian. Unean-unean jakinaraziko da aldaketa horiek gertatzen badira.

Erasmus+ mugikortasun bateko onuradunek hizkuntza test bat egin beharko dute OLS plataforman, nazioarteko harremanen bulegoak emandako jarraibideak aintzat hartuta.

Emailaz (e-mail pertsonala) jasoko dituzun argibideak jarraituz zure gaitasun linguistikoaren online azterketa bat egin behar izango duzu, irakaskuntza-hizkuntza nagusia alemaniera, bulgariera, kroaziera, txekiera, daniera, eslovakiera, finlandiera, frantsesa, greziera, nederlandera, hungariera, ingelesa, italiara, poloniera, portugesa, errumaniera, estonia, suediera, irlandera, letoniera, lituaniera, maltera eta esloveniera denetan, hizkuntza horren jatorrizko hiztuna zarenean izan ezik. Hizkuntza frogatik egin ez baduzu, ahalik eta lasterren jakinarazi beharko diozu Nazioarteko Harremanetarako Bulegoari.

Online derrigorrezko azterketa linguistikoa egiten ez baduzu, ezin izango duzu mugikortasuna egin eta Erasmus+ programatik kanpo geratuko zara.

Behin emaitzak ezagututa online hizkuntz-ikastaro bat (**HAUTAZKOA**) jarraitu ahal izango duzu, atzerrian burutuko duzun mugikortasuna prestatzeko.

3.2. Mugikortasuna hastean

3.2.1. Certificate of arrival / Hasierako ziurtagiria

UPV/EHUko Nazioarteko Harremanetarako webetik deskarga dezakezu.

Helmugako unibertsitatean sartzen zarenetik **hilabete igaro baino lehen**, ahalik eta lasterren igorri behar duzu UPV/EHUko Nazioarteko Harremanetako bulegora helmugako ikastegiak emandako ziurtagiria, erakunde horretan sartu zareneko data berresten duena.

Behin entregatzeko epea bukatu eta **Nazioarteko Harremanetako bulegoan aipatutako dokumentua jaso ez bada, programatik ken daiteke aitorten akademikorik gabe eta diru laguntzarik jaso gabe eta zigortu egingo da**, hau da, salbuetsita geratuko zara Errektoreordetza honek deialdi honen barruan gestionatutako gainontzeko mugikortasun-programetarako eskabide eta hautaketa-prozesuetatik eta UPV/EHUren Errektoreordetzak gestionatutako mugikortasun-programa guztien hurrengo deialdirako eskabide eta hautaketa-prozesuetatik at geratuko zara.

[Ziurtagiri honen emate-data ez da inola ere izango ikasleak helburuko unibertsitatean egiten duen egonaldia hasi baino lehenagokoa.](#)

3.3. Mugikortasuna amaitzean

3.3.1. Certificate of attendance / Egonaldi amaierako ziurtagiria

UPV/EHUko Nazioarteko Harremanetarako webetik deskarga dezakezu.

Helmugako unibertsitatean egindako egonaldia bukatzen duzunik **hilabete igaro baino lehen**, ahalik eta lasterren igorri behar duzu posta UPV/EHUko Nazioarteko Harremanetako bulegora eta DOKe-ra helmugako ikastegiak emandako ziurtagiria, egonaldiaren amaiera eta egonaldiaren hasierako eta bukaerako datak berresten dituen.

Behin entregatzeko epea bukatu eta Nazioarteko Harremanetako bulegoan aipatutako **dokumentua jaso ez bada**, programatik ken daiteke aitorten akademikorik gabe eta diru laguntzarik jaso gabe eta zigortu egingo da, hau da, salbuetsita geratuko zara Errektoreordetza honek deialdi honen barruan gestionatutako gainontzeko mugikortasun programetarako eskabide eta hautaketa-prozesuetatik eta UPV/EHUren Errektoreordetzak gestionatutako mugikortasun- programa guztien hurrengo deialdirako eskabide eta hautaketa-prozesuetatik at geratuko zara.

[Ziurtagiri honen emate-data ez da inola ere izango ikasleak helburuko unibertsitatean egiten duen egonaldia amaitu baino lehenagokoa.](#)

3.3.2. Erasmus+ ikaslearen azken txostena

Helmugako unibertsitatean egonaldia bukatu eta epean egin behar duzu adierazten zaizun moduan.

Tresna horrek jakinarazpen automatikoak igorriko dizkie onuradunei, mugikortasun aldia amaitu ondoren. Hori egingo da, bulego honek jasotako **Certificate of Attendance** delakoaren datak tresnan sartu ondoren.

Ezinezkoa da mezu horiek zehazki noiz igorriko diren esatea; beraz, zure eskaeran agertzen den posta helbideari adi egoteko eskatzen dizugu, mesedez, ikasturtea amaitu bitartean.

Mezu elektronikoko bat jasoko duzue zure eskaeran agertzen den posta helbidean, eu-corporate-notification-system@ec.europa.eu helbidetik

(letra xehez), inkesta bete dezazuen. Spam karpetara irits daiteke. Txosten hau on line bete behar duzue.

De: eu-corporate-notification-system@ec.europa.eu

Asunto: Solicitud de informe individual del participante Erasmus+ / Erasmus+ individual participant report request /

Txostena DERRIGOR bete behar da. Jasotzen duzuen mezuan esteka bat emango zaizue, inkestara sartu eta betetzeko, eta 30 egun naturaleko epean igortzeko, mezua jaso duzuenetik aurrera zenbatzen hasita.

3.4. Dokumentazioaren laburpen-taula

Mugikortasuna hasi AURRETIK	Konpromiso akademikoa eta matrikula	DOKe-ko nazioarteko harremanen koordinatzailearekin harremanetan jartzea
	Asegurua eta Europako Osasun Txartela	Bidali DOKe-ri internacional.doke@ehu.eus
	OLS proba (Erasmus bakarrik)	E-posta bat jasoko duzu estekarekin eta jarraibideekin Ols.internacional@ehu.eus
	Erasmus+ diru-laguntza hitzarmena (Sepie beka)	Bidali ORlri movilidad.internacional@ehu.eus Bidali DOKe-ri International.doke@ehu.eus
Mugikortasuna HASTEAN	Hasierako ziurtagiria/ Certificate of arrival	Bidali ORlri movilidad.internacional@ehu.eus Bidali DOKe-ri International.doke@ehu.eus
Mugikortasuna AMAITZEAN	Amaierako ziurtagiria/ Certificate of attendance	Bidali ORlri movilidad.internacional@ehu.eus Bidali DOKe-ri International.doke@ehu.eus
	Erasmus+ ikaslearen azken txostena	eu-corporate-notificationsystem@ec.europa.eu helbideko mezu elektronikoko bat jasoko duzue, inkesta egiteko estekarekin

* ORI → Nazioarteko Harremanetarako Bulegoa

* DOKe → Doktorego Eskola

4. DESKARGATZEKO DOKUMENTAZIOA

- Erasmus+ ikasleentzako gutuna
Arretaz irakurri zure eskubideak eta betebeharrak
- Erasmus+ doktoregoa deialdia
Arretaz irakurri
- .Oso garrantzitsua
Arretaz irakurri

5. MAECeko "BIDAIARIEN ERREGISTROA"

Nazioarteko Harremanetarako Bulegoak MAECeko bidaiarien erregistroan izena emateko gomendatzen du. Atzerri Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioaren zerbitzu elektronikoa honetan ikasleak harremanetarako datuak eguneratu ahal izango ditu, premiazko kasuetan haiekin harremanetan jarri ahal izateko. <http://www.exteriores.gob.es/Portal/es/ServiciosAlCiudadano/SiViajasAlExtranjero/Paginas/InscribeteEnElRegistroDeViajeros.aspx>.

6. BEKAK

Zure mugikortasunari dagozkion bekei buruzko informazioa kontsultatu ahal izango duzu, eta UPV/EHUko Nazioarteko Harremanetarako Bulegoaren bidez kobratuko duzu, **laguntza ekonomikoen erlaitza kontsultatzen Nazioarteko Harremanen webgunean**, deialdiak ezagutu ondoren gaitzen denean.

GARRANTZITSUA

**MAIZ KONTSULTATU ERREKTOREORDETZAREN WEB-ORRIAN
ARGITARATZEN DEN INFORMAZIOA.
BALITEKE INPRIMAKIREN BATZUK EGONALDIAN ZEHAR GAITZEA ETA
BESTE BATZUK GEHITZEA.**

Nazioarteko Harremanetako Bulegoa

Sarriena auzoa z/g. Bibliotekako eraikina 2. solairua
48940 Leioa (Bizkaia)
Tfnoa.: 94 601 2212

e-posta: movilidad.internacional@ehu.eus

Doktorego Eskola (DOKe)

e-posta: international.doke@ehu.eus